


# Berrigara

**TELESFORO  
MONZON**  
HIL ZELA 20 URTE



Herri komunikabideek eta Goienak bat egin dute | Lokatzaren urrezko ezteiak

# Astra

**Aire girotua  
duen Opel Astra  
1.960.000 pezetan \***



- Opel Astrak, serieko ekipamenduarekin, denetarik dauka: •ABS sistema•Aurreko aire poltsak  
•Alboetako aire poltsak•Direkzio lagundua•Kristal-igogailu elektrikoa aurrealdean•Ateen itxidura zentralizatu  
urrun-managailuarekin•Bolante erregulagarria•Autoa ez lapurtzeko sistema elektronikoa  
•Orain, aire girotu eta guzti, 1.960.000 pezetatik aurrera

\*11.70 €. P.V.P. Fabrikatzaileak gomendatutako salneurria penintsulan eta Balear Uharteetan. Opel Astra 1.6 Club, 3 ate. Hau guztia barne: promozioa, BEZ, matrikulazio zerga, garraioa eta Prever Plana berundun gasolina autoetan. Hii bukaera arteko promozioa.

## OPEL

# TALLERES OLA

Olabarren auzoa z/g. Telefonoak: 943 76 33 44 / 45 / 46 / 47. BERGARA

Zerbitzu ofiziala ARRASATEN:

**TAKOLO AUTOAK, S.L.**

HELBIDE BERRIA: San Andres auzoa 10-D. Telefonoa: 943 79 05 86.



# Babel, etxekonerako

Markos Balentziaga / Irakaslea

Ahaztu antzian geunkan Heribert Barrera Kataluniako Esquerra Republicanako politiko erretirauaren berririk iritsi jakuz aspaldiko partez.

Emoten dabenez, Barrera ez da ixilik egotekua, eta berbaz eta lumaz jardun dau oingo hontan. Españako he-dabideen arabera, kristorenak bota dit-tu, arrazakerixa kontzeptuak ondo batzen dituan pentsakizunak jalgi ditte eta.

Atenziñua emon dabena Españako komunikabideen kontestaziñua izan da: bizkor eta altu erantzun dotse Barrerari Katalunia danena dala. Hori bai erreakziñua! Ze ederki!

Neure kolkuan darabilt Barrerak esan dittuanak, txikixak izan ez da be, Españako komunikabideak haundixaguen premiñarik ez zeukela espāñolismua ez dan beste edozein pentsakizun politikoren kontra txakurranak jaurtitzeko.

Naparruan, oster, ixa urte barrit-tik hona dabitz UPN-PSNren Parlamen-tu-Gobernuak judasenak eta bi agin-tzen eta arautzen euskeriaren kontra.

Euskaltzalien katalogotik kanpora ibiltzen diranak be harrittuta, 27.000 la-gun batu zittuan manifestaziñua egin zan otsailaren 24ko atsaldian, napar gobernuaren dekretu murriztaillien kontra Iruñean. Miguel Sanzek hain

«Barrerak esan dittuanak, txikixak izan ez da be, Españako komunikabideak haundixaguen premiñarik ez zeuken espāñolismua ez dan beste edozein pentsakizun politikoren kontra txakurranak jaurtitzeko»

manifestaziño jendetsuari "panfletario" iritzi zotsan. Baiña kontu hontan, Espāñako komunikabide iritzi-sortzaille eta kontzientzia-esnatzaille ei direnak, mutu!

Poliglotismua, berba-aniztasuna, mintza-kolorismua, jardun-bariedadia eta ostientzako dibersidadiak danak, ze oñarrizko eskubideak diran... iñori eskatzeko!

Bizpahiru urte izango dira politiko-ki Estatu Batuei lotuta dagan Puerto Ricok ingelesari irlako hizkuntza ofizial estatusa kendu eta espāñiera hizkuntza ofizial bakar izentau zebala.

Bizi garan sasoi hontan, ingelesa baztertu nahi izatia ez da etorkizunari begira bizi izatiaren ezaugarri argixena, horratio, baiña halaxe egin zeben. Eta zer gertatu zan? Hara: Espāñan "Principe de Asturias" sarixa emon jakon Puerto Ricori!

Polita da Babel! Iñondako danian, polittaua!<

## barruan



**M. Nemirovsky**

Psikologoa

«Ikastetxeen funtzio garrantzitsu bat haurrengan interesa piztea da»

6.



**G. Gorostiaga**

Liburuzain berrixa

«Asko gustatzen jat nere lana; eskura dauka-zu informaziñua: liburuak, aldizkarixak...»

19.



**Oihana Garitano**

Artista

«Egia eta gezurraren arteko dualitatea da nagusi erakusketako argazki-lanetan»

25.

## hi, gazte!



### BEKAK

**Frantzian, graduatu-ondoko 20 beka.**  
La Caixa. 1965eko ekaina ondoren jaiok.  
Frantsesa jakitea. 2001-2002 ikasturtea.  
Epea: maiatzak 15.

**EEBBetan, graduatu-ondoko 20 beka.**  
La Caixa. 1965eko ekaina ondoren jaiok.  
Ingelesa jakitea. 2002-2003 ikasturtea.  
Epea: ekainak 29.

### IKASTAROKAK

**Pertsona helduen ongizaterako esku hartze psikofisikoa.** Hezkide eskola.  
20 orduko ikastaroa. Epea: martxoak 16.  
**Nola lagundu nerabeei heldutasun bilakaeran.** Hezkide eskola. 24 ordu.  
Epea: martxoak 9

### EKINTZAK

**Aterpekode agiria.** Adin guztiendako.  
Aterpetxe sare internazionalen sartzeko txartela. Aste Santuak auzera bikaina eta merkea.

### SARIAK

**Argazkia.** Lleidak Udala. 18 urtetik 30 urtera bitarteko adina dutenendako.  
Argazkilari gazteen I. lehiaketa.  
Epea: apirilak 30  
**Komikia.** Injuve. 30 urte baino gehiago ez dituztenendako. Injuve 2001 komiki eta ilustrazio lehiaketa.  
Epea: maiatzak 31

### LAN-ESKAITZAK

**Bi informatikari.** Donostiako Udaleko Informatika Zentroa. Informatikan, goi titulazioa; euskarazko PL 3.  
Bi informatikari, programatzaile analista, hartzeko oposizio-lehiaketa.  
Mugaeguna: martxoak 14.  
**Udaltzain/mantentze-lan eta obretarako langilea.** Lazkaoko Udala.  
Eskola Graduata edo baliokidea; BTP edo B1 gidabaimena.  
Epea: martxoak 13.  
**Gizarte Laguntzailea.** Altsasu, Olazti eta Ziordia Mankomunitatea.  
Gizarte-laguntzailea edo gizarte-laneko diplomaduna, B gidabaimena eta ibilgai-lua. Epea: martxoak 22.

### KARNETAK

Nazioarteko Aterpekode, Ikasle (ISIC), Gazte (IYTC) edo Irakasle (ITIC) karnetak eskuratzeko, zatorz Gazte Informazio Gunera.

### INFORMAZIO GEHIAGO:

**BERGARAKO GAZTE INFORMAZIO GUNEA:** Kultura Etxeko bulegoa eta panelak, eta Irizar jauregiko panelak.  
Telefonoa: 943 77 91 57.  
E-mail: gzerbitzua@euskalnet.net  
Osteguna eta ostirala: 16:00-20:00.  
Larunbata: 09:30-13:30.

**OHARRA.** Bergarako edo inguruko elkarte, heziketa zentru eta enpresei eskertuko genizueke Gazte Informazio Gunera igortzea zuen ekintzen, ikastaroen, lehiaketen eta lan-eskaintzen informazioa, bertako gazteei nahiz probintzia guztikoei informazioa zabaltzeko. Mila esker.

## bertako berbak

Juan Martin Elexpuru

### Begittaziño

Irudipena, liluramendua.  
– Eztakitt ze begittaziño euki neban. Ain edarra pentsau jatan orduan, da oiñ berriz...



## hau giroa!

San Juan auzoan jasotako datuak

Luis Mari Agirre	Temperatura maximoa	Temperatura minimoa	Euria
<b>Martxoak 1, eguena</b>	12 °C	1 °C	11,1 l/m <sup>2</sup>
<b>Martxoak 2, egubakoitza</b>	19 °C	6 °C	0,4 l/m <sup>2</sup>
<b>Martxoak 3, zapatua</b>	16 °C	9 °C	4,7 l/m <sup>2</sup>
<b>Martxoak 4, domeka</b>	12 °C	8 °C	11,3 l/m <sup>2</sup>
<b>Martxoak 5, astelehena</b>	20 °C	8 °C	- l/m <sup>2</sup>
<b>Martxoak 6, martitzena</b>	22 °C	11 °C	- l/m <sup>2</sup>
<b>Martxoak 7, eguaztena</b>	21 °C	14 °C	0,4 l/m <sup>2</sup>

## mezak

### Santa Marina

Domekak: 11:30, 13:00.  
Zapatuak: 19:00.  
Lanegunak: 19:30.

### San Pedro

Domekak: 09:30, 12:30.  
Zapatuak eta lanegunak: 19:00.

### Osintxu

Domekak: 11:30.  
Zapatuak: 19:00.

### Elosu

Domekak: 10:00.

### Ubera

Domekak: 10:30.

### San Juan

Domekak: 11:00.

### Basalگو

Domekak: 13:00.

### San Prudentzio

Domekak: 10:30.

### URTE-MEZAK

#### Santa Marina

Hileko 2. astean, domekan 11:30ean.

#### San Pedro

Hileko 3. astean, domekan 12:30ean.

### Labegarieta

Domekak: 11:00.

### San Lorentzo

Zapatuak: 20:00.

### Angiozar

Domekak: 11:00.  
Eguakitzak: 19:00.

### Monja Zaharrak

Domekak: 18:00.

Zapatuak eta lanegunak: 20:00.

### Mizpirualde

Domekak: 11:45.

Zapatuak eta lanegunak: 11:45.

### Antzuola

Domekak: 09:00, 11:30.

Zapatuak eta lanegunak: 19:30.

### Uzarraga

Domekak: 10:00.

## urbanoa

### San Lorentzo/San Juandik irteerak

07:00, 07:40, 08:50, 09:40, 10:20, 11:00, 11:40, 12:20, 13:00, 13:30, 14:20, 16:00, 16:40, 17:20, 18:10, 19:00, 19:40, 20:20 eta 21:00.

GERALEKUAK: San Juan (Torunsa aurrean), Amillaga (Manso aurrean), San Lorentzo (Soraluze aurrean), Mugertza, Zubieta, San Martin plaza, San Antonio (Zumelaga aurrean), Martoko gainean, Zubiaurre, Ozaeta (Brunet aurrean), Labegarieta (Ekonomatoan) eta Zabala jatetxea.

### Labegarieta/Olabarrenetik irteerak

07:20, 07:35, 08:30 (Olatik), 09:20, 10:00, 10:40, 11:20, 12:00, 13:05, 13:20, 13:50 (Olatik), 14:30 (Olatik), 16:20, 17:00 (Olatik), 17:25, 17:40, 18:30, 19:20, 20:00 eta 20:40.

GERALEKUAK: Labegarieta, Ozaeta, Zubiaurre, Martoko, San Antonio, Espoloia (Mintegi), San Pedro, Arrurriaga (Konde), Zubieta, Mugertza, San Lorentzo, Amillaga eta San Juan.

## kontuan hartu...

### FARMAZIAK

EGUAKITZA 9:  
GUALLAR. San Antonio 5. . . . . 943 76 11 05  
ZAPATUA 10:  
ESTELA. Matxiategi 5. . . . . 943 76 19 63  
DOMEKA 11:  
ESTELA. Matxiategi 5. . . . . 943 76 19 63  
ASTELEHENA 12:  
MOZOS. San Pedro 4. . . . . 943 76 12 15  
MARTITZENA 13:  
CAMACHO. Oxirondo 4. . . . . 943 76 11 74  
EGUAZTENA 14:  
PUY. Barrenkalea 25. . . . . 943 76 16 87  
EGUENA 15:  
GUALLAR. San Antonio 5. . . . . 943 76 11 05

### OGIA

DOMEKA 11 . . . . . Konde

### TELEFONOAK

OSASUNA / LARRIALDIK  
Anbulatorioa (txanda) . . . . . 943 76 24 40  
Bergarako udaltzaingoa. . . . . 943 77 91 06  
Antzuolako udaltzaingoa . . . . . 943 76 62 46  
Ertzaintza. . . . . 943 76 53 40  
Osasun Etxea . . . . . 943 76 24 40  
Asepeyo . . . . . 943 76 16 43  
Pakea . . . . . 943 76 13 49  
Angiozaroko medikua . . . . . 943 78 90 27  
Antzuolako medikua . . . . . 943 76 62 23  
Odol emaleak . . . . . 943 76 16 24  
Alkoholiko anonimoak . . . . . 943 76 51 06  
GARRAIOAK  
Taxiak . . . . . 943 76 19 50

### UDALA

Bergarako udaletxea . . . . . 943 77 91 00  
Antzuolako udaletxea . . . . . 943 76 62 46  
Udal Artxiboa . . . . . 943 77 91 32  
Igerilekuak . . . . . 943 76 20 51  
Kultur Etxea . . . . . 943 77 91 58  
Liburutegia . . . . . 943 77 91 62  
Kiroldegia . . . . . 943 76 56 41  
Mizpirualde Egoitza . . . . . 943 76 13 68  
BESTELAKOAK  
Epaitegia . . . . . 943 76 14 92  
Erregistroa . . . . . 943 76 13 15  
Jardun . . . . . 943 76 36 61  
Idolaz . . . . . 943 76 65 08  
Jubilatuena Etxea. Bergara . . . . . 943 76 21 40  
Antzuolako jubilatuena elk. . . . . 943 76 62 71  
Postetxea . . . . . 943 76 26 85  
Bedelkar . . . . . 943 76 04 68  
Akulu AEK . . . . . 943 76 05 18  
Udal euskaltegia . . . . . 943 76 44 53  
Bergarako notaritza . . . . . 943 76 10 73

**zorionak!**



**Jokin Gomez**  
10ean 6 urte.  
Urte askotarako!  
Gurasoak.



**Ainhoa Eguren**  
12an 10 urte.  
Urte askotarako!  
Agurtzane.



**Beñat Gonzalez**  
11n 5 urte.  
Urte askotarako!  
Etxekoak.



**Miren Zubia**  
14an 4 urte.  
Urte askotarako!  
Josu, Iker eta  
gurasoak.



**Ariane Rodriguez**  
10ean 7 urte.  
Urte askotarako!  
Gurasoak, etxekoak,  
Andoni eta Hodei.



**Jokin Oregi**  
13an 13 urte.  
Urte askotarako!  
Etxekoak.



**Unai Belategi**  
14an 3 urte.  
Urte askotarako!  
Etxekoak.



**Andoni Cid**  
10ean 6 urte.  
Urte askotarako  
begieder! Aitabxo,  
amatxo eta Ainize.



**Amaia Iztueta**  
16an 15 urte.  
Urte askotarako!  
Maite zaitugunok  
eta Bat.



**Maria Zubia**  
15ean 2 urte.  
Urte askotarako!  
Etxekoak eta Marta.



**Jasone Zabala**  
14an 22 urte.  
Urte askotarako eta  
aupá Tau! Etxekoak.



**Iker Nogueiras**  
9an urtebete.  
Urte askotarako!  
Yune eta etxekoak.



**Naiara Toledo**  
13an 4 urte.  
Urte askotarako!  
Etxekoak.



**Eneko Etxeberria**  
12an 2 urte.  
Urte askotarako!  
Gurasoak, Kristina  
eta Ainhoa.



**Unai Balanzategi**  
13an 3 urte.  
Urte askotarako!  
Leire eta gurasoak.



**Aritz Uzin**  
15ean 27 urte.  
Urte askotarako!  
Etxekoak.

**jardunen agenda**



■ **Gaztetxoendako Olinpiadak:** Domekan, 16:00etatik aurrera, 11 urtetik gorakoendako bolo, toka eta igel txapelketa egongo da Jubilatuetan. Zatozte animatzera!!

■ **Bergara ezagutzen lehiaketa:** Gaur, martxoak 9, 'Perretxikoak jardunian'-'Petu-Petuan'. Finalerdietara pasatzeko azken aukera! Egubakoitzero 19:30etik aurrera, Kartzela Zaharrean.

■ **Kartzelako aisialdia:** Bihar, martxoak 10, eskulanak: malabarak egingo ditugu.

■ **Txorimalo lehiaketa:** Izena emateko azken eguna: apirilaren 2a.



**Markel Fernandez**  
9an 2 urte.  
Urte askotarako!  
Aita, ama eta Itziar.

Hurrengo alean,  
**martxoaren 16tik 22ra**  
bitartekoan  
zorion agurrak  
argitaratuko  
ditugu.

**oharrak**

■ **1974an** jaiotakoen bazkaria martxoaren 17an Zabala jatetxean. Izena ematea (3.000 pezeta) Euskadiko Kutxan.

■ **1964an** jaiotakoen afaria martxoaren 24an Tartufo jatetxean. Izena ematea Plazako kioskoan.

■ **1954an** jaiotakoen afaria martxoaren 24an Azpeitxi jatetxean. Izena ematea (2.000 pezetako depositoa) Azpeitxin bertan eta Etxenagusia tabernan.

■ **1975an** jaiotakoen bazkaria martxoaren 24an Zabala jatetxean. Izena ematea (3.500 pezeta) Kutxan.

■ **Pazkuetako rock** kontzertuak antolatzeke bilera eguaztenean, hilak 14, egingo da, Kultur Etxean, 19:00etan.

■ **Udal Euskaltegiak** martxoaren 16an sagardotegira joateko irteera antolatu du. Ikasle ohiei ere joateko gonbidapena egiten zaie. Argibideak: 943 76 44 53.

■ **Odol ateraldia** eguaztenean, hilak 14, Seminarioan 18:30ean. Odol emale berriak behar dira.

■ **EAJk** bihar, zapatua, Bilbon egingo den manifestaziorako autobusa antolatu du. Txartelak Batzokiko tabernan.



**BANKINTER**  
www.bankinter.com

**Informa zaituz**  
Herri Lagunak-2ko  
bulegoan  
Tel.: 943 76 91 50

Hilabeterako  
**Depositua: %5,07 UTB**

Joan den egunean, hilak 1, Miryam Nemirovsky irakasle eta psikologo argentinarra Bergaran izan genuen. *Etxean ere irakurtzen eta idazten dugu hitzaldia egin zuen Ipintza institutuan. Eibarko pedagogia aholkularitzak antolatu zuen saioa, eta jende ugari batu zen.*

**G.** Zer dakigu irakurtzeko eta idazteko ikasketa prozesuaz?

**E.** Gaur egun, gauza garrantzitsu bat dakigu: umeek hainbat ideia dituztela idazketaren eta irakurketaren inguruan. Duela hogeitun urte arte ez genekizkien. Umeen ideia eta hipotesi horiek zeintzuk diren jakiteak zalantza jarri zuen irakaskuntzaren ikusmoldea. Hori izan da, nire ustez, prozesuaren inflexio-puntua.

**G.** Zeintzuk dira hipotesi horiek?

**E.** Umeak behatzen jakin dugu irakurketaren eta idazketaren gaineko hainbat ezagutza dituztela, nahiz eta inork ez irakatsi irakurtzen eta idazten. Ezagutza hori liburuak ikustetik jaso dute, eta baita irakurri eta idazten dutenekin izandako harremanetatik ere. Horrela, liburuaren gaineko erabilera jabetzen doaz, nahiz eta inork irakatsi ez.

Hipotesi horrek ordu arteko hezkuntza ereduarekin apurtu zuen, batez ere, umeek ideiak dituztela eta pentsatzen dutela onartzeagatik.

**G.** Adibide baten bidez azal ezazu.

**E.** Umeek silabikoa deritzon hipotesia dute. Hau da, silaba bakoitzeko hizki bat jartzen dute. Inork ez die esan "Pinotxo" k hiru dituela, baina hiru jartzen dizkio. Hizkuntza, medio eta

MYRIAM NEMIROVSKY  
Psikologoa

*«Ikastetxeen funtzio garrantzitsu bat umeengan interesa piztea da»*



Miryam Nemirovskyk joan den egunean egin zuen hitzaldia.

adin ezberdineko umeekin frogatu dute hori.

Honela, ekarpen psikogenetiko horiek agerian utzi dute umeek zein kontzepzio mota egiteko gai diren, nahiz eta bi edo hiru urte izan.

**G.** Hortaz, zein adinetan hasten gara irakurtzen eta idazten?

**E.** Umeek testuekin eta

**«Irakasleek ikasleen interesa asetu baino gehiago, piztu egin behar du. Leihoak irekitzeko gune izan behar du ikastetxeak.**

testu erabilzaileekin interaktatzeko aukera dutenentik. Euren erara, baina egiten dute.

**G.** Familiak, orduan, garrantzi handia du.

**E.** Irakurtzea eguneroko bizitzan presente dagoen familia baten bizi den umeak, bizpahiru urte baditu ere, liburu bat hartu eta irakurle plantak egin ditzake. Gainera, erabiliko duen ahozko diskurtsoa ezberdina izango da, liburuak, egunkaria edo komikia eskuan badu. Ume horrek esku artean zein testu mota duen jakingo du. Ezagutza hori familiak eman diezaiotke.

**G.** Eta ikastetxeak?

**E.** Ikastetxea ere oso garrantzitsua da, batez ere, familian arestian aipatutako giro hori ez duten umeen kasuan.

**G.** Gurasoak kontziente dira euren umeek irakurtzen eta idazten ikasteko duten garrantziak?

**E.** Jeneralean, ezetz esango nuke. Are gehiago, seme-alabei ipuinak irakurtzen dizkieten gurasoak ere ez dira kontziente egiten duten horrek duen garrantzi alfabetizatzaileaz.

**G.** Ikastetxeetan kontuan hartzen dira umeen zaleletasunak irakurketarako gaiak aukeratzekoan?

**E.** Haurren intesesak ez dira sortzetikoak. Ondorioz, ikastetxearen funtzioa interesak piztea da. Irakasleak neska-mutikoen interesak zein diren ikustea baino, garrantzitsuagoa da irakasleak zein interes piztu nahi duen planteatzea. Hor, erronka didaktikoa dator: "Zer egin dezaket nik nahi dudan interes hori pizteko?". Ikastetxeak leihoak irekitzeko gune izan behar du. Hau da, umea eskolara joango ez balitz, asetuko ez litzukeen interesak sortzeko gunea izan behar du.

## Bailarako euskara elkarteek eta Goienak hitzarmena sinatu dute

Ondorioz, Goienak kudeatuko ditu, aurrerantzean, herri komunikabideak

**Horixe da Goiena Komunikazio Zerbitzuak eta bailarako euskara elkarteek joan den astelehenean, hilak 5, kultura etxean sinatutako lankidetzaren xedea. Ekitaldian, Debagoieneko bederatzi euskara elkarteak eta Goienako ordezkariak izan ziren.**



Euskara elkarteetako eta Goienako ordezkariak hitzarmena sinatzen.

Hitzarmen horren bidez, Debagoieneko euskara elkarteek Goiena kooperatibaren esku utzi dituzte euren sortu eta orain arte kudeatu dituzten herri hedabideak. Aurrerantzean, hortaz, Goienak kudeatuko ditu herri bakoitzeko hedabideak, eta baita lantaldea ere.

Hitzarmena Debagoieneko eta Aramaioko bederatzi euskara elkarteak sinatu dute: Antzuolako Idolaz, Aramaioko Txirritola, Are-

txabaletako Loramendi, Arrasateko Arko, Elgetako Goibeko, Eskoriatzako Axtroki, Leintz-Gatzagako Gurrel, Oñatiko Laixan eta Bergarako Jardun.

Hitzarmenari esker, Goiena kooperatiba herri komunikabideetan dagoen talderik sendoena bihurtu da. Eskualde osorako aldizkari bat du, Goienkaria, as-

tero 20.000 ale banatzen dituena. Horrekin batera, sei herri aldizkari egiten ditu (*Aretxagazeta*, *Arrasate Press*, *Goibeko*, *Kontuola*, *Ze Barri?* eta *Berrigara*), eskualde telebista bat du (Goiena Telebista) eta baita irrati bat ere.

Asteleheneko ekitaldian euskara elkarte bakoitzeko lehendakariak izan ziren.

Goienatik, berriz, Estepan Plazaola lehendakaria.

### GOIENAK URTEBETE

Martxoaren 31n urtea bete du Goiena proiektuak. Izan ere, aipatutako egunean bailarako elkarte guztiak komunikazio proiektuan batu ziren. Goiena Komunikazio Zerbitzuak kooperatiba elkartearen eratze batzarraren izan zen hura.

Bailarako sei udal ere bildu dira Goiena proiektura: Antzuola, Aramaio, Leintz-Gatzaga, Eskoriatza, Aretxabaleta eta Arrasate. Beste hirurak, hau da, Elgeta, Oñati eta Bergara, oraindik ere hausnartzen ari dira. Datorren martxoaren 15ean, hitzarmena sinatuko du Goienak prest dauden sei udalekin. Horren bidez, Goienako bazkide laguntzaile bihurtuko dira udalak, eta ordezkariak izango dute haren aginte organoetan.

## 3.300 milioi inguruko aurrekontua onartuko du udalak datorren astean, osoko bilkuran

**2001eko** udal aurrekontu osoa 3.300 milioi pezeta ingurukoa izango da, iazkoaren antzera, Victoria no Gallastegi alkateak eguazten gauean GOITBko Alkatearekin berbetan saioan esandakoaren arabera. Aurrekontuak oraindik ere onartu barik daude. Hala ere, gaur, egubakoitza, EH-

ko ordezkariekin biltzekoak ziren aurrekontuak zehazteko, eta seguruenik, datorren astelehen edo eguaztenean osoko bilkura deituko dute aurrekontuak onartzeko, beste gauza batzuen artean.

3.300 milioi pezeta horietatik, udalaren gestioetarako 2.700 izango dira, 350

milioi Mizpirualde egoitzarako bideratuko dira, 65 milioi Udal Euskaltegirako eta 14 milioi Bergarako Bihargintza SARako.


Inbertsioetarako 750 milioi inguru bideratuko direla gaineratu zuen Gallastegik, eta hauek nabarmendu zituen: hilerria, 55 milioi; Oxirondo plaza, 50; auzo eta

errepideak, 30; lur erosketak, 250; urbanizazio planak, 120; eta Arrizuriagako etxea Barne Sailari erosteko, 64 milioi. Arrizuriagako etxeari dagokionez, liburutegia etxe horretan egingo dutela azaldu zuen alkateak. Hortaz, dagoeneko erabaki dute zein erabilera eman eraikin horri.

# Santa Katalina eraberritzeko lanak hasi ditu Diputazioak

**Dagoeneko** hasi dira konpontzen Santa Katalina ermita. Iaz, martxoan, ia guztiz erori zen: absidea, eskumaldeko horma eta egurrezko zerua erori ziren. Hogeita bi milioi pezeta gastatuko dituzte, eta dagoeneko pareta bat erdi jasota dute. Gainera, eroritako harri eta egurren artean sailkapen bat egin dute, eta ahal den material original guztia aprobeztatuko dute Santa Katalina ermita eraberritzeko.

Erorketaren ondorioz, ika-mika ugari sortu zuen. Izan ere, Eusko Jaurlaritzak urteetan izan du ondareen behin-behineko zerrendan Santa Katalina. Iaz, uztailean, ondare kalifikatuaren zerrendan sartu zuten. Ondo-



Dagoeneko Santa katalinaren pareta bat erdi jasota dago.

rioz, Foru Aldundia baseliza konpontzen hasi da.

Bide txiki bat ere egin dute ermitaraino. Orain arte, Santa baserriaren sarreratik bertatik igaro beharra zegoen ermitara hurbiltzeko. Bide berriak baserri-

igaro beharra ekiditen du. Konponketek dirauten bitartean, kamioi eta garabiek erabiliko dute bide hori. Ermita eraberritu ostean, bidea txukundu egingo dute, bisitariak haraino iritsi eta ermita bisitatu ahal izateko.

## Haikak deitutako mobilizazioak azken atxiloketak direla eta

**Haika taldeak** egin dako deiari atxikituz, Aranzadi, Ipintza eta Miguel Altuna ikastetxeetako ikasleek greba eta manifestazioa egin zuten eguaztenean. Garzon epailearen aginduz, martitzenean izandako Haikako 15 gazteren atxiloketa salatzeke egin dituzte mobilizazioak.

Bestalde, gaur, egubakoitza, borroka eta greba eguna egin dute aipatutako ikastetxeetako ikasleek martitzenean atxiloketak direla eta. Mobilizazioen barruan 12:00etan manifestazioa egitekoak ziren eta 20:00etan beste manifestazio baterako deia egin du Haikak, San Martin plazan.

# Euskaldunen eskubideen aldeko bilkura

**Euskaldunon** eskubideen aldeko kontzentrazioan jende ugari bildu zen joan zen egubakoitzean, hilak 2, San Martin plazan. Kontzentrazioa Euskal Herrian Euskaraz taldeak deitutako borroka eguneko mobilizazioetako bat izan zen. Euskararen aurkako erasoak gaitzestea eta euskaldunon hizkuntza eskubideen ber-

mea izan ziren borroka egunaren xedea.

Bestalde, egunean, martxoak 1, Erlantz Urtsunek, «Euskarak historian zehar jasan dituen erasoen eragina Euskal Herrian» hitzaldia eskaini zuen Kartzela Zaharrean. Saio hori ere EHEk antolatu zuen Euskal Herri osoan egin diren ekitaldiekin bat eginez.



EHEk egindako deialdian jende ugari bildu zen San Martin plazan.

**Aldoka  
Maldoka**

TABERNA

Kruz Gallastegi BERGARA

**LONBIDE  
ONETAKOAK**

Bidekurutzeta 5  
BERGARA

☎ 943 76 10 57



**Jose M. Martin**

pinturak - paper pintatuak  
sintasola - moketak - gotilea  
pintura industrialia

Errekalde auzoa 5, 1.a ANTZUOLA  
Tf. 943 76 62 02 / 666 517 295



# Pesa konpainiak itxi egin du Ibargaraiko bulegoa

**Martxoaren 1ean** itxi zuen Pesa autobus konpainiak Ibargarai kaleko bulegoa. Geltokiak leku berean segituko du, baina kontsultarako eta txartelak erosteko bulegorik ez da izango. Pesa konpainiako iturrien arabera, Debagoieneko jarduera guztia Arrasaten oinarrituko du, Musakola auzoko Pereda eraikinean, hain zuzen ere.

Debagoieneko jarduera guztia Arrasaten biltzeko planari duela bi urte ekin zion Pesak. Hasiera baten, autobusak gordetzeko erabili zuen eraikin hori. Instalazioetan hainbat egokitzapen egin ostean, urtarrilean, tailerretako langileak instalazio horietara joan ziren. Prozesuari amaiera emate-



Bulegoa (etxola zuria) desagertu arren, geltokiak jarraitu egin go du.

ko, Bergaran lan egiten zuten administrazioko langileak bertara eraman dituzte.

Udala, bere aldetik, «geltoki garrantzitsua» egiteko asmoa aztertzen ari da, Gallastegi alkatearen arabera, nahiz eta Torrekua perein

geltokia egiteko proiektua atzera bota zuten. Geltoki berria Ibargarain egongo dela aurreratu du alkateak, nahiz eta oraindik toki zehatza jakin ez. Hala ere, 20. areako proiektu osoan aurrez ikusi dute.

## Argi mozketak hainbat kaletan

**Hilaren 1ean**, argirik gabe geratu ziren hainbat kale. 20:45ean lur azpiko kable bat erre, eta Anbulategi atzeko transformadorean eragin zuen, itzalaldia eraginez. Amillaga eta Bolu artean eragin zuen, batez ere, eta 23:00 arte argirik gabe egon ziren. Martitzenean, berriz ere argirik gabe geratu ziren aipatutako kaletan, 16:30etik 17:30era. Antza, Iberdrolako langileak transformadorea konpontzen ari zirelako. Iberdrolaren arabera, dagoeneko konpondu dute.

## Trakzio mekanikoko ibilgailuak

**Trakzio** mekanikoko ibilgailuen gaineko zergaren errolda onartu du udalak. Martxoaren 2an onartu zuten, eta 30 eguneko epea zabaldu dute erroldaren aurkako errekurtsoak aurkezteko. Zerga ordaintzeko borondatezko epea martxoaren 5ean hasi zen eta maiatzaren 15ean itxiko da. 16tik aurrera gainordainarekin eskatuko dute.

## Euskal presoen aldeko manifestazioa

**'Euskal presoak** Euskal Herrira, euskal presoak lantegietara' lelopean, manifestazioa egin zuten herriko kaleetan zehar hainbat lagunek joan zen egubakoitz iluntzean. LAB sindikatuak egin zuen deialdia, eta Bergarako manifestazioak Debagoien guztiko jendea bildu zuen.



# ETXEPARE-BILINTX



LIBURUDENDA

Liburuak eta diskoak

Ibargarai 12 ☎ 943 76 40 50 BERGARA

*Mujika*  
guztegia



**Berezitasunak:**  
Bizkotxoak  
Erreilenoak  
Tostoiak

Artekalea 3 BERGARA 943 76 10 34

# Berrigara

443 zenbakia.  
2001eko martxoaren 9a.

Irizar jauregia. Barrenkalea 33.  
20570 Bergara.  
Telefonoa: 943 76 03 97  
Faxa: 943 76 29 77  
Posta elektronikoa:  
berrigara@topagunea.com  
Argitaratzailea: JARDUN Elkarte

**Zuzendaria:** Edu Mendibil.  
**Erredakzioa:** Monika Belastegi, Aintzane Irizar, Edu Mendibil.  
**Maketazioa:** Iñaki Iturbe.  
**Publizitatea:** Mireia Larrañaga.  
**Harpidetzatzailea:** Nerea Lazpiur.  
**Testuen zuzenketak:** Sergio Azkarate, Gari Bragado.  
**Erredakzio kontseilua:** Eneko Azkarate, M. Angel Elkoroberezar, Alex Labaien, Estepan Plazaola.  
**Komikiak:** Unai Azkarate, Oihan Vega, Usua Mendikute, Gorka Ortega & Jon Alvarez, Bittor Rodriguez, Alex Ugaldel.  
**Kolaboratzaileak:** Luis Mari Agirre, Juan Martin Elexpuru, Arantzazu Oregi, Gorka Ortega.  
**Banaketa:** Txantxangorri taldea.  
**Inprimategia:** Gertu Koop. Elk. (Zubillaga. Oñati).

Azaleko argazkia: Telesforo Monzon.  
Hitzak eta idazkiak liburutik hartua.

Tirada: 5.400 ale.  
Copyright: BERRIGARA.  
Lege gordailua: SS 50/91.  
ISSN: 1130-6599

BERRIGARAK ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Erakunde hauen laguntza:



Bergarako Udala



Gipuzkoako Foru Aldundia



Eusko Jaurlaritzako Kultura saila

## atrebentzia ezpada

### Internet erabiltzeko ohiturarik badaukazu? Zertarako erabiltzen dozu?



**Elaia Iñurrategi**

Bai, e-postak biartzeko eta baita informaziñua jasotzeko be. Orain dala gutxi etxian ipiñi giñuan.



**Itziar Zabalo**

Erabiltzen dot, informaziñua etartzeko, baiña ez gehixegi. Orain dala gutxi, ordenadoria erosi, eta harekin batera jarri giñuan.



**Josune Mondina**

Ez dot erabiltzen. Akaso, umiak haunditzen direnietxian jarriko dogu. Momentuz, behintzat, ez.



**Alex Familiar**

Erabiltzen dot, baiña gutxi. Batez be, egunkarixak irakurtzeko eta intereseko gauzak topatzeko.



**Javier Alonso**

Erabiltzen dot, lanian daukat eta. Baiña, oso gutxi, lanerako ez daukat-eta biharrezkua.



**Begoña Agirrebeitia**

Ez dot erabiltzen. Gaiñera, etxian andragizonak bakarrik bizi gara, eta etxian be ez daukogu.

## tira biraka bittor rodriguez



# Zorionak behi eroei!



ARATUSTEETAKO KALE-ANIMAZIOKO SARIA

**25.000** pezetako bonoa  
Bedelkarreko jatetxe eta tabernetan erabiltzeko



**ZONE**  
A NATURAL HISTORY

udaberria & uda

DANEVA



Barrenkalea, 35.  
943 76 03 98  
Irala, 5.  
943 76 37 41

adituen esanetan

# Udaberriko alergiak

Udaberriarekin batera, jende asko hasten da alergia arazoekin. Horregatik, oso ohikoa da alergiak udaberriarekin lotzea. Hala ere, esan beharra dago udazkenean agertzen direla alergia arazoak Euskal Herrian. Askoz jende gehiagok pairatzen du akaroen alergia. Udaberrian jende askorengan eragiten du polenak. Polena, partikula mikroskopiko batzuk dira eta airean ibiltzen dira udaberrian; pertsona alergiko batek arnasa hartzerakoan partikulok barneratzen ditu,



ATXEN ARANTZABAL

*Alergologoa*

*«Maiatza eta ekaina izaten dira, hemen, Euskal Herrian, hilerik okerrenak polenari alergia diotenendako»*

eta alergia eragiten dio. Hori gertatzen zaie, defentsarako immunoglobulina E proteina gehiegi dutelako.

Polenari alergia duenak oso sintoma adierazgarriak izaten ditu: batik bat, begietan, sudurrean, ahoan eta ezterrian eragiten du, baina baita bronkieotan ere. Begietan negarra eta azkura eragiten du, eta gorritu egiten dira begiak. Ahosabaian, belarrietan, ezterrian eta sudurrean ere azkura eragiten du, eta baita doministikua ere. Mukiak ere

izugarri ugaritzen dira alergia dela eta. Kasu larrietan, eztula eta arnas estua ere izaten dute alergikoek.

Euskal Herrian, maiatza eta ekaina izaten dira hilerik okerrenak alergia hori dute-nendako. Tratamendu egokia behar izaten dute, beti ere, kasu bakoitzaren larritasunaren arabera ezarritakoa. Alergia arin baten kasuan, nahikoa izaten da bi hilabete horietan sendagaiak hartzea. Alergiak gogor eragiten dion pertsona baten kasuan, berriz, luzatu egiten da tratamendua, eta

gainera, urtean txertoak ere hartu behar izaten ditu. Txerto horiekin, askok alergia betiko desagertaraztea lortzen dute, baina tratamendua luzea izaten da, eta pazientzia handia behar da.

Dena dela, bestelako aholku batzuk kontuan hartu behar dira, batez ere egun haizetsu eta beroetan: autoan, leihatilak itxita joatea gomendatzen da, eta mendira, ahal bada, behintzat, ez joatea. Etxean ere leihoak itxita edukitzea gomendatzen da.



Udaberrian airean ibiltzen da polena; horregatik, alergikoek hobe izaten dute mendian ez ibiltzea.

kaleen izenak



1950. hamarkadako postal bat.

## Eladio Urdangarin pasealekua

Eladio Urdangarin pasealekua Santa Marinatik Matxiategi kalera arte doan pasealekua da. Eladio Urdangarin e Yrizar 1860ko urriaren 5ean jaio zen Bergaran, eta 1930eko maiatzaren 12an hil zen. Laureaga etxe-ko jabea zen (Etxeandikua).

Abokatu eta magistratu izan zen; Granadako auzitegiko lehendakari izan zen, eta gero, Bilbokoa. Auzitegi Goreneko fiskalordea izan zen, eta baita Maroko eta Kolonietako agregatu ere.

Bi aldiz ezkondu zen: lehenengoan, Ana Yrizar y Palacios lehengusinarekin. Alargundu zenean, berriro ezkondu zen Elorrioko Maria Purificacion Garcia de Urquizu y Zurbanorekin. Emakume hori Casajarako Markesaren alarguna zen. Eladiok lehenengo emaztearekin seme bat izan zuen: Jose Maria; gazte hil zen (25 urterekin) tren-istripuan Frantzian. Bigarren emaztearekin ez zuen seme-alabarik izan. Hori dela eta, Maria de Urquizuren semeak, Javier Uncetac, Laureaga etxea oinordetzan hartu zuen.

*Urdangarin, abokatu, magistratu, eta Granadako eta Bilboko auzitegietako lehendakari izan zen. Baita auzitegi Goreneko fiskalordea eta Maroko eta Kolonietako agregatu ere.*

**Testua:** Arantzazu Oregi, Udal artxibozaina.

**Argazkia:** BUAK utzia (Ana Julia Irigoien Oiarzabal). Egilea, ezezaguna.




## Athleticekoak Bergaran

Bergarako Athletic peñak antolatuta, **Imanol Etxeberria eta Joseba Etxeberria** Athleticeko jokalaria izan ziren martitzenean Artatsen. Neska-mutiko talde batek dantza saioa eskaini zien, eta jarrera solasaldirako tarte ere egon zen. Ekitaldiari amaiera emateko, luntxa egin zuten. Zapatuan taldekoak **Athletic eta Villarrealen arteko partidua** ikustera joango dira San Mamesera.

## Hasi dira olinpiadak!

Joan den domekan hasi ziren Jardunek **gaztetxoendako antolatutako olinpiadak**. Hockey txapelketarekin eman zitzaizen hasiera. Talde bakoitzak, guztira sei dira, bina partidua jokatu zituen. ML-k lortu zuen lidertza, 20 punturekin. Domekero jokatzen dira olinpiadak, 16:00etan. Domekan, hilak 11, bolo, toka eta igel txapelketak jokatuko dira San Joxepen.



Jokatu!

## Santu Martirixak

Aspaldiko ohitura berreskuratu, eta iaiztik, **Santu Martirixen azoka** antolatzen dute osintxuarrek. Joan den zapatuan izan zen, eta jende ugari hurbildu zen goizean. Osintxuko **baserrietako produktua eta antzinako tresnak** egon ziren ikusgai frontoian eta plazan. Zer jan eta zer edana ere izan zen. Gauean, berriz, bertso afaria **Irazu eta Zeberio** bertsolariekin, Txuringon.

### Hitzaldia Globalizatu zaitez Kolonbia plangintzarekin

Hizlaria: Ivan Forero Robayo kolonbiarra

KOMITE  
INTERNAZIONALISTAK

2001eko martxoaren 14an,  
asteazkena, 19:30ean  
Bergarako kultura etxean

*Larkano*

KIROL OINETAKOAK ETA OSAGARRIAK

Barrenkalea 15-17. BERGARA.  
Tf. 943 76 25 03

## ARATUSTEETAKO ARGAZKIAK



Erakusketa domekara arte  
Zatoz eta hartu zurea!

NAHIKARI taberna  
Masterreka 20 Tf. 943 76 57 71

## Sukaldeko altzarien eta horma-armairuen fabrika

Super  
**Armeko**

- Lantegiko prezioak
- Erakusleku handia: 2 solairu
- Kalitatea eta diseinua
- Nobedade denak

Kataide poligonoa, 6. pabilioia.  
ARRASATE. 943 71 25 08

Gaur, egubakoitza, hogei urte betetzen dira Telesforo Monzon hil zela. Urte asko dira, baina Euskal Herrian lagatako arrastoa ez da berehalakoan alduko. Ez dago, ez ahaztua, eta halaxe erakusten du egunotako erreportaje eta nehiagarri berrigarian politikari eta idazle horrek izan duen tokiak. Berrigaran ere, zelan ez, herritar hori gogorazi nahi izan dugu.

Argazkiak: Telesforo Monzon. Hitzak eta idazkiak: bildumatik hartuak.

Telesforo Monzon: euskaltzale, idazle eta politikaria

# Hogei urte hil zela

**B**ergarako Olaso etxean jaio zen Telesforo Monzon, 1904an. Monzon zer izan zen definitzea ez da erraza. Bere ingurukoek ere, bera ondo ezagutu zuen jendeak ere, horixe dio, nekeza dela berba soil batzuekin zer izan zen azaltzea. Baina, definitu ezin horretan, definizio asko: gizon argia, atsegina, alaia, ulerkorra, gogorra, mitikoa, langilea, poeta..., baina denaren gaineratik, abertzalea.

Jose Luis Elkorok ondo ezagutu zuen Telesforo azken urteetan. Jose Luisen esanetan, «Bergarako pertsonarik aberatsenetakoa dugu, baina, pena den arren, ahaztuta dago herrian, ez zaio merezi duen tokirik eman».

## HIZLARI ETA ARTIKULUGILE

Errepublikaldarrikatu zenean, 1931n, zinegotzi hautatu zuten Bergaran. Ogasun eta Gobernazio batzordeetako buru izan zen gerra aurreko urteetan. EAJ alderdiko kide zen, eta halaxe izan zen urte askoan.

Urte hartan bertan, 1931n, hasi zuen hizlari ibilbidea ere. Sekulako ospea zuen hizlari bezala; erraztasun handia zuen berba egiteko, ideiei eta sentimenduei hitzak jartzeko. Jose Luis Elkorok ere halaxe gogoratzen du: «Oratoria ona zeukan, baina garrantzitsuena zen esaten zuena. Ideologo ezin hobea zen, eta argudio onak erabiltzen zekien». Urteetan ibili zen hitzaldiak ematen, hara eta hona, herri, auzo eta

ekitaldi, Euskal Herri osoan. Artikuluak ere ugari idatzi zituen. Duela urte batzuk, Telesfororen artikulua eta hitzaldi guztiak batu zituzten bilduma baten. Elkororen hitzetan, «haren artikuluek argi eta garbi erakusten zuten egoera; bete-betean ematen zuen dianan».

## 40 URTE BERGARATIK KANPO

1936an Eusko Jaurlaritzako Gobernazio sailburu izendatu zuten. Baina, Espainiako gerra piztu zenean, erbestera alde egin behar izan zuen. Afrikara ihes egin zuen; Casablancon ezarri zioten bizitoki derrigortua, eta handik, Mexikora ihes egin zuen, beti ere, Maria Josefa Ganuza emaztea lagun zuela. Erbesteratua zegoela, 1953an, Eusko



Eusko Jaurlaritzako Gobernazio sailburu izendatu zuten 1936an (zutik, ezkerrean).

Jaurlaritzako sailburutza laga zuen, Jose Antonio Agirrerekin ez zelako ondo moldatzen. Laupabost urte egin zituzten Mexikon, eta gero, Donibane Lohizunera joan ziren.

### HARRERA IZUGARRIA BERGARAN

1977an askatasunaren aldeko martxa egin zen, eta martxa horretan iritsi zen Telesforo Bergarara. 40 urte zeramatzan herrian egon barik. Ondo gogoratzen du Jose Luis Elkorok abuztuko egun hura: «Izugarria izan zen; kaleak bete-bete eginda zeuden, jendea balkoiatar iriteten zen; negarrez eta belaunikatuta ere hurbiltzen zitzaion jendea Telesforori». Baina, jarrera hark ez zuen askorik iraun, Elkororen esanetan: «Egun hartan negar egiten zuen jende askok bizkarra eman zion denbora gutxira». Izan ere, ibilaldi hori bu-

katu eta berehala bidali zuten EAJtik.

Ezker abertzalearekin harreman onak zituen Telesforo Monzonek. EAJtik bidali zutenean, gehiago hurbildu zen ezker abertzalera, eta Herri Batasunaren sortzaileetako bat izan zen, gainera. Bergarako UNEDeko egoitzan egin zuten Herri Batasunaren aurkezpena, eta hantxe izan zen Telesforo Monzon.

### BIARRITZEKO "LIZARRA-GARAZI"

Telesfororen nahia abertzale guztiak elkartu eta egoera konpontzea zen. Beti zegoen gertu berba egiteko, eta etsenpluaren bidez predikatu zuen, gainera. Elkororen arabera, «nik ez nuen sekula entzun inorengatik gaizki esaka».

Gatazka egoera konpondu nahian, 1977ko udaberrian, Jose Luis Elkorok «Lizarra-Garazi»rekin parekatzen duen

elkarrizketa bat antolatu zuen Monzonek. Euskal Herriko gizarte eta politikako talde guztiak elkartu ziren Biarritzen. Elkororen esanetan, ««orduaren ere EAJk atzera egin zuen, eta ezin izan genuen aurrerapausorik egin». Elkororendako, «nahiz eta gauza eta lan garrantzitsuak egin Telesforok, Biarritzeko elkarrizketen alde egin zuen lana azpimarratuko nuke».

### POETA, KONPOSITORE ETA IDAZLE

Politikan egindako lanagatik izan da, ziurrenik, euskaldunondako ezagun. Baina, hori baino gehiago izan zen Telesforo: idazle, poeta, antzerkigile...

Mexikon erbesteratuta zegoela argitaratu zuen lehen lana: *Urrundik, bakeoroi* poema liburua. 1945ean argitaratu zuen, eta gerra osteko euskal literatura-ko lehen liburua izan zen. Maria Josefa Ganuza emazteak hala gogoratzen du Telesfororen olerkari izaera: «Telesforo sarritan joaten zen mendira; han, ondo batzuk ikusi, adibidez, eta poesia ikusten zuen. Toki guztietan ikusten zuen poesia». Antzerkigile egin zuen, hala ere, lan oparagoa: *Odol bidea, Hazparneko anderea, Behorren ostioa...* Baina, literatura lan guztia ere abertzaletasunera, bere ametsetara, bideratuta zegoen.

## ■ 1977ko askatasunaren martxan iritsi zen Monzon Bergarara, 40 urte eta gero

## ■ Urteetan EAJko kide izan eta gero, Herri Batasunaren sortzaileetako bat izan zen



Telesforo Monzon Herri Batasunaren aurkezpenean, Bergarako UNEDen egoitzean, 1978. urtean.



## Telesfororen ikuspegia herrigintzaren lehian

**Patxi Zabaleta**

Olaso Dorrea fundazioko kidea

**T**elesforo Monzon pertsonalitate aberatseko gizona izan zen, eta horregatik, alde askotatik azter daiteke bere izaera eta erakarmena. Politikaria zen lehenik, baina politikariaz gainera, poeta, idazlea, antzerkigilea, hizlari aparta eta diplomatiko azkarra ere bazen. Izaera aberats horrek estali egin izan ditu maiz Telesfororen beste dohain eta ekarpen batzuk; horietako baten lekukotasuna edo testigantza eman nahi dut idazlan honetan.

Telesforok bere ekimen eta ekarpen politikoaz edo kulturalaz gainera, Euskal Herriaren nortasuna etorkizunean nola zaindu eta bermatu kezka sakona zuen. Telesforok esaten zuen herriek, herri bezala iraun ahal izateko, lehia bat jokatu behar dutela, apustu bat, borroka bat. Eta borroka horrek hiru maila ditu, bere ustez.

Lehenengoan, behin-behinekoan alegia, eguneroko erronkak dauzka herriak. Ekonomiako, hirigintza edo gizarte eraketako eta gizakien premiei erantzuteko erronkak. Borroka politiko formal maila honetan egiten da. Agintea eskuratzea eta etorkizuna nolabait baldintzatu edo aurreikustea da lehen maila horretako xede nagusia.

Bigarren maila batean, ideien eta kultura arloko borroka omen dago, Telesfororen ustez. Herri baten izateak historiaren eta etorkizunaren ikuspegia elkartzen ditu, herriak pertsona norbanakoen izatearen aurretik eta ondorenetik irauten duen nortasuna baitu. Beraz, herrigintzan izan, bada, eguneroko politikatik at, nahiz eta berarekin loturik ideien eta kulturaren mailako borroka. Kultura zentzu antropologikoan ulerturik, alegia.

Hirugarren maila batean, berriz, Telesfororen ustez, herrigintzako lehia horretan ikurren edo sinboloen borroka dago. Euskal esaera zaharrak dioenez, izena duenak izana ba omen du, eta Telesforok ere uste zuen herri batek izatekotan, bere izenak, ikurrak eta sinboloak behar dituela.

Behin, bere Donibaneko etxean, Maria Josefa eta biei nire nobela motz bat irakurri nien, Izokiaren Jauzia izena duen nobelatxoa. Eskaria egin nion, ea erdarazko argitalpenerako hitzaurrea eginen ote zidan, eta baiezkoa eman ondoren, bere enfasi poetikoa erabiltzeko ohitura harekin zera aitortzen zuen: - Izoki hori, zure nobelako izoki hori Bidasoakoa da!

Telesfororen ekarpen eta ikuspegia ekarri nahi izan dut hemen. Ez zen teoriarik idazteko zalea. Askoz ere atsegina zuten artikuluko literarioak, egia da. Baina bere kezkek eta, batez ere, bere gogorapenen sakontasuna ekarri nahi izan dut bere ohore eta justiziarako.

### HILETA ERE, IZUGARRI JENDETSUA

1979an, Bizkaiko Diputazioan itxialdia egiteagatik atxilotu eta Langraitzen espetxeratu zuten. Handik gutxira, Espainiako legebiltzarkide hautatu zuten HBren izenean, eta berehala laga zuten aske. Kartzelan osasun arazoak izan zituen, eta handik bi urtera hil zen Baionako ospitalean. Donibanetik Bergara ekarri zuten hileta elizkizunetarako. Horrela gogoratzen ditu egun haiek Elkorok: «Bergarara bidean, herriz herri harrera beroa egin zioten. Baina, Guardia Zibilak herrietan sartzea debekatu eta gorpua zeraman autoa autobidetik joatera behartu zuen». Baina Bergaran jende mordoa zuen zain. Hiru egunean egon zen ikusgai gorpua Olason. Hileta elizkizun egunean ere jendetza izugarria egon zen San Pedro parrokan. Barru eta kanpo, jendez gainezka.

### OLASO DORREA FUNDAZIOA

Telesforok eta Maria Josefak oso fondo literario garrantzitsua jaso zuten arbasoengandik. Fondo hori eta Monzonek berak idatzi eta jasotako dokumentu guztiak babestu eta mantendu nahian, Olaso Dorrea fundazioa sortu zuten Monzonen anai-arrebek eta Maria Josefak. Gaur egun, Jose Luis Elkoro da fundazio horretako presidentea; bere esanetan, «euskal fondorik aberatsetaketakoa da, eta ondo zaindu beharra dago».

Gauzak horrela, Euskaltzaindiarekin harremanetan jarri ziren fundazioak, eta orain, fondo hori aztertu, sailkatu eta digitalizatzen dihardute.<



# Urrun heldu al daitezke enpresak garraio zerbitzu aurreratu bat gabe?



## EZ

Begiratu Europa berriari eta merkatu bakarra ikusi. Herrialde bakar bat balitz bezala erantzuteko ahalmena duen garraio sare batekin.

Begiratu etorkizunean pentsatzen duten enpresei. Ikusi jada eskatzen ari direla lojistika eta garraiorako aukera berriak. Eta erantzun egokiena eman.

Begiratu ekonomia berriari. Eta ikusi garraioa eta distribuzioa ezinbestekoak izango direla. Nola hitzegin genezake Internet-en bidezko salerosketetaz, primerako garraio zerbitzu bat gabe?

Hauek dira, **Guipuzcoana**, **Deutsche Post Euro Express** taldean sartzera bultzatu duten arrazoiak, Europako garraio eta distribuzio sare aurreratu baten partaide izateko: **Euro Express**.

Emaitzak bidean daude.





## Udaberri/Udako kolekzio berria

### M A Y A

Tatoo eta piercing-ak ere egiten ditugu



## Txuringo Jatetxea



- ~Menua eta karta
- ~Ezkontzak
- ~Jaunartzeak
- ~Txerrikumea, bildotsa,  
baserriko oilaskoa labean erreta...

OSINTXU. Tf. 943 76 48 63



**Garikoitz da Bergarako liburutegiko langille berrixa. Gizarte graduatuan diplomaduna da, eta 29 urte dauzka. Bilbotarra da, baiña gaur egun Galdakaon bizi da. Azkenengo bi urtietan, Durangoko liburutegixan ibilli da lanian.**

# Garikoitz Gorostiaga

**Orain arte ere liburuzain lan egin dozu.**

**Zer da gehixen gustatzen jatzuna?**

Informaziñua eskura izatia: liburuak, egunkarixak, aldizkarixak...

**Eta gutxien?**

Ez dakit; dana gustatzen jat.

**Zer liburu mota gustatzen jatzu gehixen?**

Danetik irakurtzia gustatzen jat; baiña, batez be, poesia eta nobela.

**Orain zein liburu diharduzu irakurtzen?**

Mikel Lasaren *Poema bilduma*.

**Liburutegira doan bati zer liburu gomendatuko zontsake?**

Pertsonaren arabera; zuri, adibidez, *Madame Bovary* oso liburu interesgarria da, batez be, emakumiendako.

**Idazle bat?**

Joseba Sarrionandia. Badira beste batzuk be: Bernardo Atxaga, Andu Lertxundi...

**Gustoko abeslari bat?**

Euskaldunak... Benito Lertxundi eta Mikel Laboa. Kanpokua, berriz, Jannis Joplin.

**Eta kantu bat?**

*Hator, hator.*

**Denpora librian, zer egittia gustatzen jatzu?**

Astian ezin dotena egin: lagunekin egon, mendira juan, bazkari berezixa prestatu...

**Kirolzalia zara?**

Bai; lasterka egittia eta mendira juatia asko gustatzen jat.

**Ikusteko, zer kirol?**

Atletismua.

**Urtaro bat?**

Udabarrixa.

**Zer zeñutakua zara?**

Eskorpio.

**Horoskopua irakurtzen dozu?**

Noizian behin, lagun artian, *Egunkariakua* irakurtzen dogu.

**Eta kasorik egitten jatzu?**

Ez; barre egitten dot.

**Egunkarixa, irratixa ala telebista?**

Danetik pixka bat; baiña telebista ez jat asko gustatzen. Egunkarixa aukeratuko nuke horien artian.

**Zer da lehenengo irakurtzen dozuna?**

Azalak; egunian laupabost egunkari irakurtzen dot.

**Nahikua diru eduki ezkeru, zer egingo ziñuke?**

Lehenengo, banatu: umezurtzendako, kultura bultzatzeko... Eta gero, lasai bizitzen saiatuko nintzateke.

**Bizitzeko toki bat?**

Euskal Herriko edozein herri txiki; hiria ez jat gustatzen.

**Eta oporretarako?**

Kostaldeko edozein toki; adibidez, Kubara juango nintzateke.



BIZKOTZOAK, ERREILENOAK ETA TOFTOIAK

**Larrañaga**

San Pedro, 9 - Teléfono. 761051

R.S.I. 209374-55

**BERGARA**

*Gozogintzan aitzindari.*

**IKUS.BI  
KIROLAK**

ZABALDU BERRIA  
Bidekurutzeta, 7.  
943 76 04 10

**Quiksilver, Rip Curl, H. Waves, Town & Country  
Astore, Realaren marka!**

**ARDATZA**  
*Brikolaketa*


Ateak eta zokaloak  
Horma-armairuak  
Sarrailak eta heldulekuak  
Koadroak markoan ipini  
Era guztietako moldurak  
Apalak  
Kaxoiak

Masterreka, 4-behea  
☎ 943 76 18 93

## Lokatza Ziklismo Eskolaren zilarrezko ezteiak aurten

Sortu zeneko 25. urteurrenean, Lokatza Ziklismo Eskolak lau talde izango ditu: gazteak, 2. urteko kadeteak, lehen urteko kadeteak eta infantilak. Aurtengo denboraldian, 17 txirrindularik jardungo dute guztira. Denek ilusioz ekin diote denboraldi.

Lokatza Sumofic gazte mailako taldean zortzi txirrindulari izango dira, Jon Ander Garitano eta Luismi De Benito zuzendarien aginduetara. Horietatik bost lagunek bigarren urtea egingo dute gazte mailan: Aitor Zenitagoia, Zigor Medina, Jon Arzelus, Iker Sanchez eta Mikel Elkorok, hain zuzen. Bestalde, lehen urteko gazteak Inaki Calvo, Xabier Erdabide eta Inigo Larrañaga izango dira. Kadete mailan, Xabier Uribe-salgok izango du bigarren urteko kadeteen ardura; bost lagun arituko dira guztira: Asier Alberdi, Ibai Otxoa-Aizpurua, Harri Albisua, Kepa Varela eta Erik Cuevas. Inigo Arzelus, aldiz, Unai Arantzabal eta Ibai Zornoza lehen urteko kadeteekin izango da lanean. Azkenik, Jose Mari Gabilondok zuzenduko duen Lokatza Sumofic infantil taldean



Aurtengo denboraldian 17 txirrindularik jardungo dute Lokatza Ziklismo Eskolan.

Joseba Muguruza eta Joel Medrano arituko dira.

### GORLAKO IGOERA

Lokatzak, denboraldian zehar, afizionatu mailako hiru lasterketa antolatuko ditu: Gorko igoera martxoaren 18an, Pentekoste saria ekainaren 3an eta, azkenik, San Martin saria irailaren 23an. Bestalde, lehen mailako junioren Santa Marina saria jokatu da uztailaren 21ean, eta bigarren urteko kadeteen bi proba antolatuko dituzte, Labegarietakoa

maiatzaren 1ean eta Gipuzkoako txapelketa ekainaren 16an. Bestalde, gazte mailako Gipuzkoako itzuliaren azken etapa Bergaran jokatu da, ekainaren 25ean.

### GAZTETXOAK ZALETU

Mikel Larrañaga Lokatzako presidentearen hitzetan, «azken urteotan, orokorrean, txirrindulari kopuruak behera egin du, ume gutxi dagoelako, kirol eskaintza zabalagoa delako eta, era berean, hainbat txirrindularik izandako istripu larrien

erruz. Arazoa, zoritxarrez, orokortuta dago eta, esate baterako, Usurbilen, Haimar Zubeldiaren jaioterrian, ez dago ziklismo eskolarik».

Larrañagaren arabera, «helburu nagusia da gaztetxoak txirrindularitzarako zalezea eta gora egiten duten ziklistak ateratzen badira, askoz hobeto». Aurtengo denboraldian, Lokatzatik igarotako zazpi txirrindulari afizionatueta egongo dira. Horrek argi erakusten du Lokatzak azken urteotan egindako lan bikaina.

**DENA**  
**100etik**

**ZURE OPARIENTZAKO**

Simon Arrieta 3

**IBARGYREN PENTSVAK**

BIONA pentsuen biltegia,  
BIOTER produktuak,  
haziak eta bestelako nekazal produktuak



San Pedro 3 Tf. 943 76 23 79

**PANA DE ROKUA**  
**IBATE XEAL**

Asteburuetan bertako  
babak eta saiheskia

SALBADOR 10 **ELGETA**  
Tf. 943 76 82 73

# Shotokan taldekoak primeran Lasarten

**Bergarako** Shotokan karate taldeko Markel Larrañagak eta Oier Tolak emaitza bikainak lortu zituzten domekan Lasarten jokaturako Gipuzkoako karate txapelketan. Infantil mailan, katetan, Markelek bigarren postua eskuratu zuen eskolarteko txapelketan, eta gazte mailan Oier Tola hirugarrena izan zen. Kumite edo borroketan, berriz, Markel Larrañaga txapelduna izan genuen eta Oier Tola bigarrena izan zen. Domekako txapelketan Miren Laskurainek eta Raquel Blancok ere hartu zuten parte, gazte mailan lehenbiziko seien artean sailkatuz.



Oier Tola eta Markel Larrañaga domekan.

JOXEAN IÑARRA

## EUSKADIKO TXAPELKETA

Josean Iñarra beraien entrenatzailea, Gipuzkoako karate hautatzailea eta Euskadi-

ko selekzioko prestatzaile fisikoa da. Markel eta Oier martxoaren 17an Bilbon izango dira, Euskadiko txapelketan. Raquelek eta Mirenere ere Bilbon egoteko aukerak dituzte, Josean Iñarrak azaldu digunez. Iñarraren hitzetan, «horrela jarrai-

tuz gero, datorren urtean Espainiako txapelketarako sailkatzea izango da gure helburua, gazteek maila oso ona erakutsi dutelako aurret. Egia esateko, oso ondo ari dira entrenatzen, eta ikusi egin behar Euskadiko txapelketan zer lortzen dugun».

# Labegaraietako tenis txapelketan hogeta hamaika lagun lehian

**Labegaraietan** jokatzeko ari diren Bergarako tenis txapelketan 31 lagun (horietatik 17 bergararrak) ari dira parte hartzen. Zortzi taldeetan banatu dira, eta multzo bakoitzeko bi jokalaririk onenak sailkatuko dira hu-

rrengo faserako. Astebukerara honetan, hain zuzen, lehen fasea bukatzeko falta diren partiduak jokatu dituzte. Sailkatzen diren 16 jokalariek final zortzirenak jokatu dituzte datorren astebukaeran.

Tenis txapelketako finala martxoaren 31n edo apirilaren 1ean jokatuko dute. Joan zen urteko txapelketan Jorge Aranes bergararrak irabazi zuen, finalean Javier Olasori nagusitu ondoren.

## karteldegia

### FUTBOLA

#### Bergara-Eibartarrak

Infantilak

Zapatua, 11:30. Ipintza

#### Bergara-Hernani

Hirugarren maila

Zapatua, 16:30. Agorrosin

#### Bergara-Axular

Bigarren erregionala

Zapatua, 18:30. Ipintza

#### Bergara-Hernani

Ohorezko mailako kadeteak

Domeka, 10:30. Ipintza

#### Bergara-Almen

Lehen mailako gazteak

Domeka, 12:00. Ipintza

### SASKIBALOA

#### Bergara-Tolosa

Gazte mutilak

Domeka, 12:15.

Mariaren Lagundia

### PILOTA

#### Bergara-Intxaurren

2. mailako kadeteak

#### Bergara-Tolosa

Lehen eta 2. mailako gazteak

Gaur, egubakoitza, 19:30ean, Udal

Pilotalekuan

## Askatuak taldea Bergaran

**Astelehenean**, martxoak 12, Donostiako Askatuak saskibaloitaldeak entrenamendua egingo du Labegaraietako Kiroldegian, goizeko 11etan. Zaletu guztiek entrenamendua jarraitzeko aukera izango dute. Cafes Aitona taldeak LEB ligan jokatzeko dihardu, eta azken jardunaldiaren ondoren, sailkapeneko azken tokian daude donostiarrak.

**etxalar**

kafetegia  
kruasantegia

Boni Laskurain 4  
943 76 50 68



**BANKINTER**

**%4,95** etik aurrera lehen 3 urteetan

Euribor-a + **%0,50** garbia, ondoren\*

\*Irekiera  
komisioa:  
%0,25.  
35 urte  
bitarteraino



**ARRI**

**Industri  
hornidura**

Zubiaurre, 30  
Tf. eta faxa: 943 76 19 04.  
Sakelakoa: 656 78 64 84.



# Labegaraietako futbito txapelketa

## EMAITZAK

### A MULTZOA

Torrekua-Eri	4-7
Bar Ugarte-Irubide	7-1
Bildurbarek-Buya	5-4
Canalejas-Amoskibar	1-5

### B MULTZOA

Ortzi-Bayer	4-11
Vacalouras-Alum. Kresala	4-7
Etengabe-Kanpazar	6-13
Cine Bank Irimo-P. Bergara	4-4

### C MULTZOA

Patxaran Team-Latex	3-0
Txipiron-Shaktale	7-6
K.Piperrak-Artusamak	3-4
Guadalest-A Ze Flaxa	6-0

## PARTIDUAK

### ZAPATUAN, BARRUAN

16:00: Irubide jatetxea-Pagomendi	Fac
17:00: Fac-Bar Ugarte	Apa Oxemai
18:00: Apa Oxemai-Bildurbarek	Aterpe
19:00: Aterpe-Etengabe	Bayer
20:00: Bayer-Agirrebeña	Etengabe

### DOMEKAN, BARRUAN

9:30: A Ze Flaxa-Txipiron	Amilotx
10:30: Amilotx-Ortzi	Txipiron
11:30: Buya-Bar Canalejas	Amoskibar
12:30: Amoskibar-Errotagain	Canalejas
16:00: Guadalest-Mongatxurak	Antolaketa
17:00: Alum. Kresala-Cine Bank Irimo	Guadalest

### DOMEKAN, KANPOAN

11:30: Kanpazar Harrob.-Vacalouras	Ortzi
------------------------------------	-------

## ARGI!

### Latex kanporatuta

Latex taldea kanporatu dute antolatzaileek. Patxaran Team taldearen aurkako partidura ez aurkezteagatik. Beraz, C taldean zortzi talde bakarrik izango dira lehia liga amaitu bitartean. Latexek bigarren itzulian jokatutako partidua ez dira kontuan hartuko.

### Berriz jokoan

Buya taldeko Jon Sanchezek eta Kanpazar Harrobiak taldeko Joseba Onsoño jokalariek hurrengo jardunaldian jokatuko ahal izango dute, euren zigorrak bete ondoren.

## mahoneroak



JOSE MIGUEL LETE  
BKEko zuzendaritzakoa

Partidu kaskar samarra jokatu zuen Bergarak zapatuan Alaves C taldearen aurka, Gasteizen. Lehenbiziko minutuak nahiko parekatuak izan ziren, eta gasteiztarren lehenbiziko gola nahiko eztabaidagarria izan zen; euren jokalarietako batek eskuarekin moztu zuen baloia eta, ondoren, baloi luze baten ondorioz, gure jokalaria batek eta Alaveseko beste batek baloiaren bila salto egitean, gure kontrako falta adierazi zuen epaileak, inolako arrazoirik gabe. Falta ondoz, lehen gola egin ziguten, eta handik gutxira, gure defentsaren huts bat aprobetxatuz, bigarrena egin ziguten.

Lehen zatian izan genituen gol aukerak ez genituen aprobetxatu, eta bigarren zatian gauza gutxi egin genuen zelai erditik aurrera.

Datozen asteetan, partidu erabakigarriak jokatuko ditugu sailkapenean gure atzetik diren taldeen kontra, eta onena eman beharko dugu, jaitsiera postuetatik bost puntura bakarrik gaudelako. Hernaniri irabaztea beharrezkoa da.

### Amoskibar, Txipiron

A multzoan, Amoskibarrek erraz irabazi zion Bar Canalejas taldeari (5-1) eta, C multzoan, Txipiron talde beteranoa gol bategatik nagusitu zitzaion Shaktalari (7-6).



**GORA eta BEHERA**



### Ortzi, A Ze Flaxa

Ortzi Bayer-en aurka galdu zuen (4-11) eta sailkapeneko laugarren postura jaitsi da. A Ze Flaxak, C multzoko liderrak, ere galdu egin zuen Guadalest-en kontra (0-6).

## SAILKAPENA

### A multzoa

	P	J
1. Bar Ugarte	43	16
2. Errotagain	37	16
3. Pagomendi	29	16
4. Bildurbarek Opel Lam	28	15
5. Bar Canalejas	28	16
6. Amoskibar	27	16
7. Fac	23	15
8. Eri	16	17
9. Irubide jatetxea	14	16
10. Buya	14	16
11. Torrekua	9	17
12. Apa Oxemai	4	16

### B multzoa

	P	J
1. Aterpe	38	14
2. Aluminios Kresala	29	14
3. Kanpazar Harrobia	28	14
4. Ortzi	27	13
5. Amilotx	23	14
6. Pinturas Bergara	20	14
7. Bayer	17	14
8. Vacalouras	13	15
9. Cine Bank Irimo	8	15
10. Agirrebeña jatetxea	6	13
11. Etengabe	4	14
-	-	-

### C multzoa

	P	J
1. A Ze Flaxa	33	14
2. Guadalest	27	13
3. Artusamak	25	11
4. Mongatxurak	24	11
5. Txipiron	19	13
6. Komando Piperrak	19	13
7. Shaktale	13	12
8. Patxaran Team	4	13
-	-	-
-	-	-
-	-	-

### Informazio hau babesle hauei esker:

Irizar 2  
☎ 943 76 14 95

**JAUJA KIROLAK**

**OGIZUN**  
koop. elk.  
okindegia

San Pedro 21 Zubillaga z/g  
BERGARA OÑATI  
943 76 20 49 943 78 24 13

**Otsein Saria**

Orain arteko partiduen ondoren, sailkapen orokorra horrela dago:  
**Arkaitz Arana.....11 puntu**  
**Aritz Arabiourrutia.....10 puntu**  
**Koldo Erostarbe.....9 puntu**  
 Etxeko partidua bakarrik hartzen ditugu kontuan.

# GASTON Y DANIELA



**Inglesina**®



Kruz Gallastegi 3 **BERGARA** ☎ 943 76 07 37

Banatzaile ofiziala

## Eskaintza handia! Prezio txikiak!

Kamisetak 1.000 pta

Osagarriak 2.000 pta

Jertseak 3.000 pta

Alkandorak 4.000 pta

Prakak 4.000 pta

Jakak 5.000 pta

Miss Sixty  
Sixty  
Cimarron  
Energy  
Be You (K)  
Jnco  
Gas  
Dickies  
Volcom  
Silvia Jorda  
Monica Sarabia

**M mooby**

Kruz Gallastegi 943 76 54 48



MIGUEL ANGEL ELKOROBEREZIBAR

## bonofotoa

Zein arbola mota da Euzko Jaurlaritzaren arbola bereziaren izendapena jasota daukan hau?

## galde debalde

1. Zenbat euskara elkartek sinatu dute Goienarekin lankidetz hitzarmena?

- A- Bederatzik
- B- Bostek
- C- Bik

2. Zenbat urte betetzen ditu aurten Lokatza ziklismo eskolak?

- A- 50 urte
- B- 25 urte
- C- 15 urte

3. Zenbat lan dago ikusgai Oihana Garitanoren erakusketan?

- A- 26 argazki eta 9 koadro
- B- 16 argazki eta 9 koadro
- C- 2 argazki eta 9 koadro



Aurreko aleko saria **Nora Blanco**rentzat izan da: 5.000 pezetako erosketa-bonoa. Zorionak Norari!

Galderen erantzun zuzenak hauek ziren:

Bonofotoa: **San Martin plaza**

Galde Debalde: **1-C, 2-A, 3-A**

**Super BM**k emandako 5.000 pezetako erosketa-bonoa zozketatuko du **BERRIGARAK** asmatzaileon artean!

### BONOFOTOA

**GALDE DEBALDE** 1: \_\_\_\_\_ 2: \_\_\_\_\_ 3: \_\_\_\_\_

Izen-deiturak: \_\_\_\_\_

Telefonia: \_\_\_\_\_

Ekarri txartela **EGUAZTEN EGUERDIRAKO** Berrigarara! **SARI EDERRA IRABAZ DEZAKEZU!**

**Gurelesa**  
esne osoa, litroa

**99 PTA!**

**Super BMn beti eskaintzarik onenak!**



## Oihana Garitanoren argazki eta pintura erakusketa

Oihana Garitano bergararrak argazki eta pintura erakusketa ireki zuen martitzenean, kultura etxean. 26 argazki eta bederatzi margolanek osatzen dute erakusketa, eta hilaren 18a bitartean egongo da ikusgai.

Oihana Garitanok barkarka egiten duen bigarren erakusketa da. Lehenengoa duela urte eta erdi jarri zuen Nahikarin. Erakusketa hartan pintura zen nagusi. Oraingoan, argazkiak eta margolanak tartekatu ditu.

Argazkirako jauzia Londresen egin du. Azken urtea hantxe eman du, eta «material eskasiagatik jo nuen, batez ere, argazkira». Erakusketako argazki ia gehienak ere Londresen ateratakoak dira. Argazkiak izanik



26 argazki eta 9 margok osatzen duten Garitanoren erakusketa.

ere, pikturikoak direla azaldu du Oihanak, eta dualitatea dutela nagusi: egia eta gezurra, hain zuzen ere. «Hori adierazteko, beste elementu batzuez gain, gorputz atalez baliatu naiz». Batetik, manikien atalak agertzen dira argazkietan, eta al-

damenean, pertsonen gorputz atalak. «Manikiak gizakiaz duena eta gizakiak manikiaz duena adierazi nahi izan dut».

Margolanak pertsonen espresioetan oinarritzen dira, postura eta koloreari garrantzia emanez.

**Txorimalo lehiaketan izena emateko epea zabaldu du Jardunek**

**Jadanik** eman daiteke izena Jardunek Erramu Zapatuan (apirilaren 7an) antolatzen duen Txorimalo lehiaketan esku hartzeko. Aurten, lehiaketaren zazpigarren aldia da.

Edonork parte hartu dezake lehiaketan. Taldeka jokatu gero, gehienez zortzi partaide izan beharko dute. Hiru maila banatuko dira: 14 urte artekoak, 15-60 urte bitartekoak eta 60 urtetik gorakoak. Izena emateko azken eguna apirilaren 2a da.

Izena emateko eta argibideak jasotzeko Jardunek kartzela zaharrean duen egoitzara jo dezakezue edo telefono hauetara deitu: 943 76 36 61 edo 943 76 08 19.

## Datorren eguaztenean hasiko da Korrika Kulturala

**Bi urtean** behin bisita egiten digun Korrikaren aintzindari abiatuko da datorren eguaztenean, hilak 14, Korrika Kulturala Bergaran. 18:00etan, Txan Magoak emanaldia eskainiko du San Joxepe egoitzan. Egubakoitzean, hilak 16, kontzertua antolatu dute AEK-ko kideek Jam aretoan, 22:00etan.

Sen eta Selektah Kolektiboa taldeak eta hainbat DJren musika entzuteko aukera izango da. Hilaren 23an, egubakoitza, afaria antolatu dute Infernukua tabernan. Izena Akulu euskaltegian edo 943 76 05 18 telefonoan eman daiteke.

Korrikari dagokionez, apirilaren 2an, astelehena,

igaroko da Bergararik. 20:20an helduko da Osintxura, eta Bergara erdialdera 20:56ean. Guztira, bederatzi kilometro egingo ditu herrian, Osintxutik Antzuola arte. Egun horretarako hainbat ekitaldi prestatu dituzte AEK-ko kideek, nahiz eta oraindik guztiz zehaztu barrik dauden.



Korrika 12ko irudia.

Argitapen honen edizioko laguntzaile:

 **kutxa**

*gizarte-ekintza  
obra social*



## Lokatzako jubenilak, 1983

**L**okatza Ziklismo Eskolak sortu zeneko 25. urteurrena beteko du aurtten. Eskolako arduradunen arabera, herriko hirurehun gazte inguru dira taldetik azken 25 urteotan. Ez da gutxi. Garai baten, orain baino gazte gehiago aritzen ziren txirrindularitzan, baina Lokatzak lan aipagarria egiten jarraitzen du.

Oraingo asteko erretratu zaharrean, 1983. urtean jubenil taldea osatzen zuten txirrindulariak ikus ditzakezue, ziklisten ohiko biserarekin. Orduan, 18 urte izango zituzten. Erretratua Seminario ondoan aterata dago, gaur egun Ibargaraiko etxe berriak egin dituzten tokian, hain zuzen, Larrañaga optikaren parean, gutxi gorabehera. Hauek

dira argazkikoak, ezkerretik eskumara:

Jesus Legorburu "Kaxeta", Jesus Mari Rueda, Jose Ramon Etxeberria, Iñaki Zenitagoia, Igor Garitano, Rikardo Iturbe eta Jon Suinaga.

*Argazkia: Lokatza Ziklismo Eskola*

### ADI!

Argazki zaharren bat erakutsi nahi izanez gero, BERRIGARARA bertara ekar dezakezu. Irizar jauregian gaituzu, zatoz!



**GAZTELU**  
BURDINAKI DENDA

Mintegi, 1 • Tf. 943 76 32 48 / 943 76 34 50 • BERGARA



**Sukaldeak.**  
**Horma armairuak.**  
**Neurrira egindako**  
**altzariak.**  
**Ateak eta leihoak.**  
**Arozlanak.**

BERGARA ☎ 943 76 58 86

*Zuri Beltz margoak*

Barnealde eta kanpoaldearen erreforma,  
pintura zerbitzu osoa eta moketak

943 76 14 60  
607 447 494  
943 76 59 59



**zumelaga**

JATETXEA

**58 urte zuen zerbitzura!**

San Antonio 5 BERGARA ☎ 943 76 20 21



**MEMESA**

INDUSTRI HORNIDURAK

Tf. 943 71 24 25



Ibargarai 11-13 BERGARA  
Telefonoa eta faxa: 943 76 70 58



Zure sukaldea.





## Estilo berriak



grupo



**Amuebladora  
Mondragonesa**

**a. eme. interiores  
a. eme. sukaldeak  
centro hogar muebles  
sofa leku, Zigorrola**

[aemeinteriores@euskalnet.net](mailto:aemeinteriores@euskalnet.net)

- Tel.: 943 79 15 03
- Tel.: 943 77 14 92
- Tel.: 943 77 14 92
- Tel.: 943 77 14 92

[amuebmondra@euskalnet.net](mailto:amuebmondra@euskalnet.net)